

*Elur etxea* k aurkezten du

# Eros eta Afroditaren aitortzak *musikala*



ANDONI  
MUTILOA



ESTI  
CURIEL

# Eros eta Afroditaren aitortzak *musikala*

## PROIEKTU HONEN HELBURUA

Gure gizarteko ohitura batzuk eraldatzen doaz apurka-apurka. **Sexualitateari** dagokionez, gero eta gehiago dira eredu heterosexual monogamotik haratago, harreman fisiko-emozionalak beste modu batera ulertu eta bizitzeko hautua egiten duten pertsonak. Eta antzezlan honetan **aniztasun sexualari** buruz luze eta zabal hitz egiten dugu, **gaian sakonduz eta taburik gabe**. Helburu nagusia: **gaur egungo gizarte anitzaren argazkia hobeto ezagutzea eta gure sexualitateari buruzko gogoeta egitea**. Gaurkotasun handiko kontua izateaz gain, ikusleen artean interesa piztuko duela iruditzen zaigu.

**Oharra:** *Eros Eta Afroditaren Aitortzak* musikalak **Eusko Jaurlaritzaren antzerkirako testuak idazteko dirulaguntza** jaso du (2025)



## LANTZEN DITUEN GAIAK

Sexu-aniztasunari buruz hitz egiten duen antzezlan bat sortu dugu. Gai nagusia: **gure sekretuak, beste pertsonekin hain erraz partekatzen ez ditugun kontuak**: frustrazio sexualaren ondorioak, gure desirak errealitate bihurtzeko ditugun mugak, ezohiko praktika sexualak, fideltasuna, gizarteko arau moralak, lengoia erotiko ezberdinen arteko talka, sexua eta maitasuna ezberdintzea, harreman monogamoen bilakaera epe luzean...

Horrez gain, **gaur egungo harreman sexualetan aldaketak eragin dituzten gai batzuei buruz ere hausnartu** nahi dugu: **ligatzeko aplikazioen iraultza, chemsex-a, PrEP-aren erabileraren ondorioak, sexu-transmisiozko infekzioen gorakada...** Eta posible al da **sakonak eta serioak diren kontu hauei buruz modu dibertigarrian** hitz egitea, **moralkerian erori gabe?** Antzezlan hau sortzerakoan izan dugun **erronka nagusietako bat horixe izan da. Horregatik erabaki dugu komedia musikala** izatea.

# KOMEDIA MUSIKALA

**Zergatik** egin dugu **komedia musikalaren** aldeko apustua?

- Berez, **serioak eta sakonak diren gaiak umorez** lantzea askoz interesgarriagoa dela iruditzen zaigulako.
- **Kokapenak, pertsonaiak eta eszenografia modu errazean eraldatzea** ahalbidetzen digulako, ikusleek berehala ulertuko dutelako musikalaren kodea.
- Ikuskizun honen bitartez helarazi nahi dugun **hausnarketa modu arin eta dibertigarrian** egin nahi dugulako.
- **Originaltasuna: interes sozialeko gaiak** lantzen dituzten **musikal gutxi** egiten direlako **euskaraz**.

Antzezlaneko **soinu-banda espreski musikal honetarako idatzitako 10 kantuz osatuta dago. Pop estiloko abesti hauek laburrak, biziak eta itsaskorrak dira. Andoni arduratu da kantuen hitzak eta melodiak sortzeaz. **Zestoako Gaztain estudioan grabatu dituzte, Eñaut Gaztañagaren gidaritzapean. Abesti hauek entzun nahi izanez gero, [hementxe duzue aukera](#).****



## SINOPSISIA

Eneritzek eta Josuk ezohiko leku batean egin dute topo. Herri berean bizi dira biak, baina ez dira lagunak. Hizketan hasi dira. Bi protagonistek euren harreman sexualak frustrazioz bizi izan dituzten arren, egoera horri aurre egiteko bide ezberdinak aukeratu dituzte. Topaketa horrek ondorioak izango ditu bien bizitzan.



## PROTAGONISTAK

**ENERITZ:** 38 urte ditu. Ezkonduta dago Aitorrekin eta bi seme-alaben ama da. Sexualki frustratuta zegoela konturatu zen urtebete lehenago eta, orduz geroztik, beste pertsona batzuekin harreman sexualak ditu ezkutuan. Ez da damutzen egindakoaz, bere sexualitateari eta gozamenari merezi duen lekua eskaini diolako behingo batez eta ez dago prest horri uko egiteko.

**JOSU:** 45 urte ditu. Gizon serioa, sentibera eta beldurtia da. Herriko gay ofiziala izan da herritar askorentzat. Horrek asko baldintzatu du bere bizitza, baztertuta sentitu izan delako sarritan. Alerta egoeran bizitzera ohituta dago. Ez du bikotekiderik izan inoiz. Nahi eta ezin dabil, bizitza alaituko dion harreman eder bat norbaitekin bizitzeko desiatzen. Frustrazio handia eragiten dio horrek.

# FITXA TEKNIKOAK

**Aretoko ikuskizuna. Formatu ertaina. Behar teknikoak:**

- **Gutxieneko espazio eszenikoa:** 5 metro (zabalera) x 4 metro (sakonera) x 3 metro (altuera).
- **Argiak:** Gutxienez 10 foku (PC edo par). Horietatik 4 kolore neutrokoak (argi orokorra) eta besteak koloretakoak (urdinak, gorriak, horiak. Konpainiak filtroak eraman ditzake).
- **Soinu-mahaia**, musika eta audioa bertatik kontrolatzeko.
- Abesti instrumentalak entzuteko **ordenagailu portatil bat** (konpainiak darama).
- **Bi baffle.**
- **Bi monitore**, aktoreek musika entzuteko eszenatokitik
- **Bi diadema mikro**, spare moduan, konpainiak daramatzanak ez badute ondo funtzionatzen, horien ordeaz erabiltzeko.
- **Eskuko mikro inalanbriko bat** (spare)



## ELUR ETXEA

**Arte eszenikoen bitartez gizartea eraldatu eta balio positiboak sustatzeko** asmoz, Andoni Mutiloak **Elur Etxea** sortu zuen 2020an. **Generoa, aniztasun sexuala, LGBTI+ kolektiboaren eskubideak, osasuna, zaintza afektibo-emozionala...** gai horien inguruko **hausnarketa ahalbideratzea** da antzerki konpainia honen helburu nagusia. Elur Etxeak **antzerki soziala eta musikala uztartzen ditu, euskaraz,** eta horren adibide dira orain arte sortutako **4 ikuskizunak: *Esnatu Naiz kabareta (2020), Sex Sua musikala (2022), Nire Fantasia kontzertu-kabareta (2024)* eta *Eros Eta Afroditaren Aitortzak musikala (2025)*.**

Dagoeneko **100 emanaldi baino gehiago** eskaini dituzte Euskal Herriko hiri eta herrietan. Andonik **ahalegin handia** egin du **bere ikuskizunak landa-eremura iristeko** eta, bide batez, obra hauetan lantzen dituzten gaiei buruzko gogoeta zabaltzeko herritarren artean.

**2022az geroztik nerabeei zuzendutako saioak** ere eskaintzen ari dira institutuetan, ***Gehitu eta Mugen Gainetik* elkarrekin batera** martxan jarritako programa bati esker (hezitzaileen tailerrak + emanaldiak). Horrez gain, *Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Eskola* katalogoan daude *Esnatu Naiz kabareta* eta *Sex Sua musikala*. Bi programa hauen bitartez, ikasleei zuzendutako **25 emanaldi baino gehiago** eskaini dituzte jada.



# FITXA ARTISTIKOA

- **IZENBURUA:** EROS ETA AFRODITAREN AITORTZAK
- **GENEROA:** KOMEDIA MUSIKALA
- **FORMATUA:** ERTAINA. ARETOKO ANTZEZLANA
- **AKTOREAK:** ESTI CUIRIEL eta ANDONI MUTILOA
- **GIDOIA, ABESTIAK ETA ZUZENDARITZA:** ANDONI MUTILOA
- **ESZENA ZUZENDARIA:** MIREN GOJENOLA
- **KOREOGRAFOA:** HODEI IRIARTE
- **HIZKUNTZA:** EUSKARA
- **IRAUPENA:** 60 MINUTU
- **IKUSLEAK:** HELDUAK (14 urtetik gora)
- **ARGAZKIAK:** EIDER ITURRIAGA
- **SOINU-BANDAREN GRABAKETA:** GAZTAIN ESTUDIOAK
- **ESTREINALDIA:** ZUMAIA. 2025EKO URRIA
- **EKOIZPENA ETA DISTRIBUZIOA:** ELUR ETXEA
- **BABESLEAK:** MUGEN GAINETIK ETA EUSKO JAURLARITZA
- **LAGUNTZAILEAK:** KUTXA FUNDAZIOA, ZUMAIKO ETA HERNANIKO UDALAK



## INFORMAZIO GEHIAGO

Trailer laburra: [labur.eus/eros-afrodita-laburra](http://labur.eus/eros-afrodita-laburra)

Trailer luzea: [labur.eus/eros-afrodita-trailerra](http://labur.eus/eros-afrodita-trailerra)

Bideo osoa: [labur.eus/eros-afrodita-oso](http://labur.eus/eros-afrodita-oso)

Webgunea: [elur.eus](http://elur.eus)

Instagram: [@elur\\_etxea](https://www.instagram.com/elur_etxea)

Facebook: [Elur Etxea](https://www.facebook.com/Elur-Etxea)

## HARREMANETARAKO

Emaila: [info@elur.eus](mailto:info@elur.eus)

Telefona: [+34 655748789](tel:+34655748789) (Andoni)

